

2023-12-15

PRENTSA-TXOSTENA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN 31. EDIZIOAREN AURKEZPENA

Gaur aurkeztu dugu prentsaurrean 2024ko ekainaren 2an Ordizian egingo dugun Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaia. Prentsaurrekoan hitza hartu dute Eneko Lasa, Ordiziako Urdaneta eskolako IGEko ordezkariak eta Lurdes Imaz, EHIGEko koordinatzaileak. Bertan egon dira ere Ordiziako eskola eta institutuko guraso eta zuzendaritzak.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia, eskola publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ardatza izan dadin aldarrikatzea helburu duen eguna da eta urtero ospatzen da ekaineko aurreneko igandean 1994. urteaz geroztik.

Euskal Eskola Publikoaren komunitatea osatzen dugun milaka lagun topagune izatearekin batera, eskola publikoak bereak dituen ezaugarriak gizarteratzeko egun aproposa bihurtu da: publikoa den heinean denona eta denontzako, euskara eta euskal kultura sustatzailea, herrian txertatua, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzean oinarritua eta berritzailea.

Indartsu iristen da Euskal Eskola Publikoaren Jaia 31. edizio honetara. Izan ere, gero eta gehiago gara egun honetan biltzen garen hezkuntza-komunitateko kideak, eskola publikoa indartsu eta ahaldunduta dagoenaren erakusgarri.

LELOA ETA IRUDIA

“**Publikoa aI do!**” da Euskal Eskola Publikoaren 31. jaiaren leloa.

Ordizian eta Goierriko txoko askotan euskara batuko “ari du” esaera “aI do” esaten da. Honela, esaterako “euria ari du” “ebie aI do” esaten da. Hori jarraituz, Ordizian, Goierriin, Euskal Herrian “Publikoa ari duela”, Eskola Publikoa eta bere balio eta indarguneak zabaltzen ari direla, ahalegin horretan gabiltzala adierazi nahi da.

Eta hitzek ematen duten jokoaz baliatuz, “aI do” esaera barruan, ingelesak ematen duen aukera aprobeztatu nahi izan dugu “I do” ere adierazteko. Hau da, publikoa nik ere egiten dudala, publikoa gutariko bakoitzak, guztiok egiten dugula.

Lelo eta irudi honen bidez Euskal Eskola Publikoak orokorrean eta Ordizian modu berezian dituen balio eta ardatz hauek azpimarratu nahi izan ditugu:

Aniztasuna eta inklusioa:

- Ordizia, Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako herrien artean migrazio tasa altuena duena da: %21,09. 0-16 adin tartean ia ikasleen laurdenen familiek jatorria atzerrian dute. Haur Hezkuntzan, ordea, 0-5 urte tartean, jatorria

atzerrian duten familien portzentajea %37koa da eta 2-3ko adin tartean, ia haurren erdiaren familiek jatorria atzerrian dute.

Familien jatorriaren baitako ikasleen banaketan ordea, desoreka handia da herriko bi ikastetxeen artean, ehuneko 31,5 puntukoa, alegia.

- Egoera sozioekonomikoaren baitan ere desoreka handia dago bi ikastetxeen artean, izan ere egoera sozioekonomiko zaila duten familietako ia ikasle guztiak Eskola Publikoan daude.
- Desorekak horrelakoak izanik ere, Eskola Publikoak egungo eta etorkizuneko Ordizia eta Euskal Herriaren aniztasuna modu positiboan hartzen du, gure nortasun eta kulturaren txertatzen saiatzen da eta hortik aberasten garen heinean gure elkarbizitza, nortasun eta kultura eraikitzeke apustua egiten du.
- Ikasle eta familien jatorri, egoera sozioekonomiko, genero, pentsaera, sinesmen, gaitasun ezberdin eta anitzak onartzen ditu eta horiekin elkar aberasten saiatzen da.
- Ordiziako errealitatea kontuan izanik desorekak modu inklusiboan landu eta gainditzen laguntzeko funtsezko tresna da Ordiziako Eskola Publikoa.

Euskalduntzea:

- Migrazio tasa altuari lotuta, baina ez soilik horregatik, egun Ordizian ikasleen tutoreen %59a da euskalduna. Baina oso modu desorekatuan banatzen da hau ere. Tutoreen euskara ezagutzaren baitan ehuneko 48 puntuko desoreka dago bi ikastetxeen artean.
- Hau honela izanda ere eta edozein delarik familien eta ikasleen jatorria, pentsaera edo sinesmena ikasleen eta, zeharka, familien euskalduntzea ere bultzatzen du Eskola Publikoak.
- Ordiziako errealitatea kontuan, ikasle eta familia gehien eta herria bera ere gehien euskalduntzen duen eskola da publikoa. Zailtasun guztien gainetik eskolan, bileretan eta patioan euskara ardatz eta nagusi izateko proiektua du Eskola Publikoak.
- Bakoitzaren jatorriko edo familiako hizkuntza, sinesmen, kulturekiko errespetutik euskara eta euskal kultura, gure herria eta mundua ulertzeko modu gisara txertatzen du Eskola Publikoak.

Publikotasuna:

- Eskola Publikoak herritar orok, edozein delarik ere bere jatorria (diru-sarrerak, pentsaera, sinesmena, aukera pertsonal eta sozialak) kalitatezko hezkuntza jasotzeko duen eskubidea bermatzen du eta ikasleei arlo guztietan eta modu integralean garatzeko aukera ematen die.
- Familia, ikasle eta irakasleen parte-hartze eta elkarlanean oinarritzen da eta bultzatzen du.
- Langile publikoz osatua dago. Eskola eta hezkuntza boterearen edo kontrol ideologiko saiakeretatik askatzeko eta hezkuntza integral eta kritiko bat garatzeko funtsezko tresna da Eskola Publikoa.

Irudiari dagokionez, Eukene Lekuona da aurtengo irudiaren egilea, Ordiziako Urdaneta eskolako komunitatearen kide den diseinatzailea. Logo honen bitartez dena bustitzen duen euria eta hezetasun horretatik sortzen den bizitza irudikatu nahi izan ditu Lekuonak.

Euria koloretako tanten bidez irudikatzen da eta kimuak koloretako hostoen moduan. Kolore horiek adierazten digute sortzen dena plurala eta inklusiboa dela. Elementuak modu oso erraz eta garbian irudikatu dira da azpimarratu nahi ditugun hiru ardatzak (publikoa, euskalduna eta aniztasuna eta inklusiboa) garbi ikus daitezen.

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

Bi ikastetxe publiko daude Ordizian: Urdaneta eskola eta Oianguren institutua.

Urdaneta HLHI

Urdaneta Eskola Ordiziako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea da. 1973-1974 ikasturtean zabaldu zen eta 1985-1986 ikasturtean ezarri zen D eredu. Egun, Euskal Herriaz gain, beste 31 herrialdetan jatorria duten familiatako seihun ikasletik gora batzen ditu. Euskaraz gain, beste 21 hizkuntzatan hitzen egiten duten familietako haurrak eskolatzen ditu, euskara ardatz duen hezkuntza sisteman.

Ordizian eta Eskola Publikoan bereziki dugun aniztasun handiari erantzun nahian metodologia egokienaren bila hasi ziren eta eskola desberdinak bisitatu ostean Amara Berri Sistema ezartzea erabaki zuen ikastetxeak. 2021ean Amara Berri Sarea sortzen da, sistema hau duten eskola guztiak elkarrekin aritzeko xedez.

2006-2007 ikasturtean "Kalitatea Hezkuntzan" Proiektuan sartzea erabaki zuen Urdaneta ikastetxeak eta hiru urte pasa zituzten eskolako protokolo eta dokumentu guztiak berridazten eta antolatzen; eta 2011-2012 ikasturtean Ikuskaritzak barneko auditoria egin zuen eta "Kalitatea Hezkuntzan" Proiektuan K lortu zuten.

Momentu honetan 50 ikastetxe publiko batera lana egiten dute Kalitatea Hezkuntza Sarean.

Urdanetarrak Guraso Elkarte

Ikastetxeak hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa bultzatzen du. Urdanetarrak Guraso Elkarte Ordiziako eskola publikoko familien elkarte da. Elkarteak ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barnean funtzio garrantzitsua betetzen du, Eskolako Organo Gorenean eta iraunkorrean parte hartuz.

Familiek Organo Gorena, Guraso Elkarte eta batzordeen bidez ikastetxearen kudeaketan parte hartzen dute. Ikasleek, eskolako ardatz nagusia direnez, beraien ordezkarien bitartez eskolako funtzionamenduan eta antolaketan parte hartzen dute.

Azken urteetan proiektu garrantzitsuak jarri dituzte abian, hala nola:

- Aniztasuna modu positiboan bizi eta inklusioa ahalbidetzeko festa ezberdinak urtean zehar (jatorri ezberdinetako familietako 800 pertsona bazkaltzen biltzeraino)

- Komunitate osoa saretzeko komunikazio eta itzulpen tresnak.
- Naturarekin kontaktu zuzena izan eta eskola ingurua eraberritzeko proiektuak (Baso Eskola).
- Ikasleen elikadura osasungarriagoa izateko ekimenak (hamaiketako osasungarria eta jangela jasangarria).
- Burujabetza teknologikoan eta pantailen erabilera egokia egiteko pausoak ematen hasi.
- Herriko eta ikastetxeen arteko desorekak bideratzen laguntzeko ekimenak...

Oianguren BHI

Oianguren BHI Ordiziako institutu publikoa da eta gaur egun 521 ikasle inguru hartzen ditu. Inguruko herrietako ikasleak etortzen dira institutura: Zaldibia, Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga eta Gaintza.

Institutuan, DBHtik Batxilergorako ikasketak burutu daitezke. Azken honetan, modalitate hauek eskaintzen dira: zientzia eta teknologiako batxilergoa eta gizarte zientzietako batxilergoa, guztiak D ereduan. Horretaz gain, haur-hezkuntzako goi-mailako ziklo bat ere eskaintzen da.

Gaur egun, institutua iraultza pedagogiko batean murgilduta dago, gero eta proiektu gehiago egiten dira. Hala, 2020-2021 ikasturtean, eTwinning proiektuak European bigarren saria lortu zuen "Breaking news: listen to my radio" proiektuarekin. eTwinning ekimenaz gain, institutua STEAM esperientzian murgilduta dago (science, technology, engineering, arts, mathematics), gure gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak inspiratzea helburu duena. PBL (Project Based Learning) proiektuaren helburua ikusi eta erakutsi daitekeen "azken produktu" bat sortzea da.

Oiangurengo ahotsak, irakurle finaren txokoa eta hizkuntzen tratamendu integrala bezalako ekimenek osatzen dute modernizatu den eta gaur egungo garaietara egokitu den eskaintza akademikoaren oinarria. Ildo honetatik, digitalizazioak gero eta pisu handiagoa du zentroan.

Oianguru Guraso Elkarteak

Oianguru Guraso Elkarteak Institutuko eguneroko bizitzan eta heziketa prozesuan zuzendaritza eta irakasle klustroarekin batera parte aktiboa hartzea du helburu. Elkarte hau ikasle eta herrietako beharren ezinbesteko ahotsa da eskola komunitatean.

Hauek dira Oianguren Guraso Elkartearen helburuak:

- Gurasoak seme-alaben heziketarekin lotuta dauden gaietan bideratu eta laguntzea.
- Ikastetxeko heziketa jardueretan laguntzea.
- Ikastetxeko zerbitzuen hobekuntza sustatzea.
- Ikasleen gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzea bultzatzea.
- Gurasoentzako zein ikasleentzako hezkuntza jarduera osagarriak antolatu eta finantziatzea.

ESPAZIOAK ETA PROGRAMA

Herri barneko hainbat gunetan ospatuko dira aurtengo Jaiko jarduerak:

- Asteazkeneroko Azoka egiten den Plaza Nagusia
- Garagartza plaza
- Frontoia eta zuhaiztia
- JM Barandiaran plaza
- Barrena parkea

Horretaz gain, eta urtero bezala, hainbat kale jarduera izango dira. Bestalde, jarduerak ez dira mugatuko ekainaren 2ra. Ekainaren 2ko jai eta programazio zabalarekin batera, aurrerago plazaratzen joango garen aurrez azaldiriko ildo nagusiak lantzeko helburua duten sorpresaz beteriko urte osoko programa prestatzen ari gara.

BABESLEAK

Prentsaurrea amaitzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren babesle eta laguntzaile guztiei, bereziki Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ordiziako Udala, EITB eta Kutxari.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Informazio gehiago: Lurdes Imaz 688 689 877

2023-12-15

PRENTSA-TXOSTENA

PRESENTACIÓN DE LA 31ª EDICIÓN DE LA FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Hoy hemos presentado en rueda de prensa la 31ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que celebraremos en Ordizia (Gipuzkoa), el 2 de junio de 2024. Han tomado la palabra Eneko Lasas, representante de la AMPA de la escuela Urdaneta de Ordizia, y Lurdes Imaz, coordinadora de EHIGE. También han estado presentes los padres y direcciones de la escuela e instituto de Ordizia.

La Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que tiene como objetivo reivindicar la escuela pública como eje vertebrador del sistema educativo vasco, se celebra anualmente el primer domingo de junio desde 1994.

Además de ser el punto de encuentro de miles de personas que formamos parte de la comunidad de la Escuela Pública Vasca, se ha convertido en el día idóneo para dar a conocer las características propias de la escuela pública: la de todos y para todas, promotora del euskera y la cultura vasca, enraizada en el pueblo, basada en la participación de la comunidad educativa e innovadora.

La Fiesta de la Escuela Pública Vasca llega con fuerza a esta 31ª edición. Y es que cada vez somos más los miembros de la comunidad educativa que nos reunimos en este día, como muestra de que la escuela pública está fuerte y empoderada.

LEMA E IMAGEN

“**Publikoa al do!**” es el lema de la 31ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca.

En Ordizia y en muchos rincones del Goierri se dice "ai do" para referirse al "ari du" en euskara batua. Así, por ejemplo, "llueve" se dice "ebie ai do". Así, queremos transmitir el mensaje "Publikoa ari du", es decir, que se están difundiendo los valores y los puntos fuertes de la Escuela Pública en Ordizia, en Goierri y en Euskal Herria.

Y aprovechando el juego que dan las palabras, con el término "ai do", hemos querido aprovechar la oportunidad que ofrece el inglés para expresar también "I do". Es decir, que lo público también lo hago yo, lo público lo hacemos cada una y uno de nosotros, todos y todas.

Con este lema e imagen hemos querido destacar los siguientes valores y ejes que tiene la Escuela Pública Vasca en general y en Ordizia en particular:

Diversidad e inclusión:

- Ordizia es el municipio con mayor tasa de migración entre las poblaciones de más de 10.000 habitantes de Euskal Herria: 21,09%. Entre 0 y 16 años casi la cuarta parte del alumnado tiene su origen en el extranjero. En Educación Infantil, en cambio, entre 0 y 5 años, el porcentaje de familias con origen en el extranjero es del 37% y en el tramo de edad 2-3, casi la mitad de los niños y niñas tienen origen en el extranjero.
En cambio, la distribución del alumnado en origen de las familias presenta un importante desequilibrio entre los dos centros educativos de la localidad, 31,5 puntos porcentuales.
- En lo referente a la situación socioeconómica también existe un gran desequilibrio entre ambos centros, ya que casi todos los alumnos de familias con una situación socioeconómica precaria se encuentran en la Escuela Pública.
- A pesar de estos desequilibrios, la Escuela Pública acoge positivamente la diversidad actual y futura de Ordizia y Euskal Herria, intenta incorporarla en nuestra identidad y cultura y apuesta por construir nuestra convivencia, identidad y cultura en la medida en que nos enriquecemos de ella.
- Reconoce los orígenes, situaciones socioeconómicas, géneros, formas de pensar, creencias, capacidades diversas del alumnado y de las familias.
- y procura enriquecerse mutuamente.
- La Escuela Pública de Ordizia es un instrumento fundamental para trabajar y superar los desequilibrios de forma inclusiva teniendo en cuenta la realidad de Ordizia.

Euskaldunización:

- Ligado a la alta tasa de migración, pero no sólo por ello, en la actualidad en Ordizia el 59% de los tutores del alumnado son euskaldunes. Pero también se reparte de forma muy desigual. En este ámbito, hay un desequilibrio de 48 puntos porcentuales entre ambos centros.
- Siendo esto así y sea cual sea el origen, el pensamiento o la creencia de las familias y del alumnado, la Escuela Pública también promueve la euskaldunización de los alumnos y, de forma indirecta, de las familias.
- Teniendo en cuenta la realidad de Ordizia, la escuela pública es la que más alumnado y familias euskalduniza. alumnos y familias y la que más euskalduniza también el pueblo. La Escuela Pública tiene el proyecto de que, por encima de todas las dificultades, el euskera sea el eje y principal en la escuela, en las reuniones y en el patio.
- La Escuela Pública incorpora el euskera y la cultura vasca como una forma de entender nuestro país y nuestro mundo, desde el respeto a la lengua, las creencias, las culturas, la lengua o la familia de cada una.

Publikotasuna:

- La Escuela Pública garantiza el derecho de toda la ciudadanía a recibir una educación de calidad, cualquiera que sea su origen (ingresos, mentalidad, creencias, oportunidades personales y sociales) y permite al alumnado desarrollarse en todos los ámbitos y de forma integral.
- Impulsa y se basa en la participación y colaboración de familias, alumnado y profesorado.
- Está formada por personal público. compuesto por empleados públicos. La Escuela Pública es un instrumento fundamental para liberar a la escuela y la educación del poder o de los intentos de control ideológico y desarrollar una educación integral y crítica.

En lo referente a la imagen, Eukene Lekuona es la autora de la imagen de este año, una diseñadora que forma parte de la comunidad de la escuela Urdaneta de Ordizia. A través de este logo Lekuona ha querido representar la lluvia que lo moja todo y la vida que surge de esa humedad.

La lluvia se representa mediante gotas de colores y los brotes como hojas de colores. Estos colores nos indican que lo que se crea es plural e inclusivo. Los elementos se han representado de forma muy sencilla y nítida para que los tres ejes sobre los que queremos incidir (lo público, euskaldun y la diversidad e inclusión) se vean con claridad.

CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS DE ORDIZIA

Ordizia cuenta con dos centros educativos públicos: Urdaneta eskola y el instituto Oianguren.

Urdaneta HLHI

Urdaneta Eskola es un centro de educación infantil y primaria de Ordizia. Se amplió en el curso 1973-1974 y se implantó el modelo D en el curso 1985-1986. En la actualidad, además de Euskal Herria, reúne a más de seiscientos alumnos de familias originarias de 31 países. Además del euskera, escolariza a niños de familias que hablan otras 21 lenguas en un sistema educativo centrado en el euskera.

En busca de la metodología más adecuada para dar respuesta a la gran diversidad que existe en Ordizia y en la Escuela Pública, el centro decidió implantar el Sistema Amara Berri tras visitar diferentes escuelas. En 2021 se crea la Red Amara Berri, con el objetivo de trabajar conjuntamente todas las escuelas que disponen de este sistema.

En el curso 2006-2007 Urdaneta eskola decidió integrarse en el Proyecto "Kalitatea Hezkuntzan" y pasó tres años reescribiendo y organizando todos los protocolos y documentos escolares; y en el curso 2011-2012 la Inspección realizó una auditoría interna y obtuvo la K en dicho proyecto.

En este momento 50 centros públicos trabajan conjuntamente en la red Kalitatea Hezkuntza Sarean.

AMPA Urdanetarrak

El centro promueve la participación activa de toda la comunidad educativa. Urdanetarrak Guraso Elkartea es la asociación de familias de la escuela pública de Ordizia. La asociación cumple una importante función dentro del Proyecto Educativo del centro, participando en el OMR del centro.

Las familias participan en la gestión del centro a través del OMR, la AMPA y las comisiones. El alumnado, como eje central de la escuela, participa a través de sus representantes en su funcionamiento y organización.

En los últimos años han puesto en marcha importantes proyectos como estos:

- Diferentes fiestas para vivir positivamente la diversidad y posibilitar la inclusión a lo largo del año (hasta reunir a 800 personas de familias de diferentes procedencias comiendo juntas).
- Herramientas de comunicación y traducción para la red de toda la comunidad educativa.
- Proyectos de contacto directo con la naturaleza y remodelación del entorno escolar (Baso Eskola).
- Iniciativas para una alimentación más saludable del alumnado (almuerzo saludable y comedor sostenible).
- Iniciar pasos en la soberanía tecnológica y en el uso adecuado de las pantallas.
- Iniciativas que ayuden a reconducir los desequilibrios en el pueblo y entre los centros...

IES Oianguren

El IES Oianguren es el instituto público de Ordizia y actualmente acoge a unos 521 alumnos y alumnas de Ordizia, Zaldibia, Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga y Gaintza.

En el instituto se pueden cursar los estudios de ESO a Bachillerato. En este último se ofertan las siguientes modalidades: bachillerato de ciencia y tecnología y bachillerato de ciencias sociales, todas ellas en modelo D. Además, se oferta un ciclo superior de educación infantil.

Hoy en día, el instituto está inmerso en una revolución pedagógica, cada vez se hacen más proyectos. Así, en el curso 2020-2021 el proyecto eTwinning obtuvo el segundo premio en Europa con el proyecto "Breaking news: listen to my radio". Además de la iniciativa eTwinning, el instituto está inmerso en la experiencia STEAM (science, technology, engineering, arts, mathematics), cuyo objetivo es inspirar vocaciones científico-tecnológicas entre nuestros jóvenes. El proyecto PBL (Project Based Learning) tiene como objetivo crear un "producto final" visible y exhibible.

Iniciativas como “Oiangurengo ahotsak”, “irakurle finaren txokoa” o el tratamiento integral den las lenguas forman la base de la oferta académica actual. En ese sentido, la digitalización está cogiendo cada vez más peso en el centro.

AMPA Oiangu

Oiangu Guraso Elkarte tiene como objetivo participar activamente en la vida cotidiana y en el proceso educativo del Instituto junto a la dirección y el claustro de profesorado. Esta asociación es la voz ineludible de las necesidades del alumnado y las diferentes localidades en la comunidad escolar.

Estos son los objetivos de la AMPA Oiangu:

- Ayudar a las familia sen todo lo relacionado con la educación de sus hijas e hijos.
- Ayudar en las actividades educativas del centro.
- Fomentar la mejora de los servicios del centro.
- Fomentar la participación de las familia sen el centro.
- Organizar y financiar actividades para el alumnado y las familias.

ESPACIOS Y PROGRAMA

Las actividades de la Fiesta de este año se celebrarán en diferentes espacios urbanos:

- Plaza Nagusia
- Garagartza plaza
- Frontoia eta zuhaiztia
- JM Barandiaren plaza
- Barrena parkea

Además de ello, y como todos los años, habrá diversas actividades de calle. Por otra parte, las actuaciones no se limitarán al 2 de junio. Junto a la amplia programación y del 2 de junio, se está elaborando un programa de todo un año lleno de sorpresas para desarrollar los objetivos expuestos anteriormente.

PATROCINADORES

Para finalizar la rueda de prensa queremos mostrar nuestro más sincero agradecimiento a todos los patrocinadores y colaboradores de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, especialmente al Departamento de Educación, La Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Ordizia, EITB y Kutxa.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Más información: Lurdes Imaz 688 689 877